



# AKELARREA

Hitz honen jatorria zure ondoko belategian duzu: “akelarrea” izena du, “akerraren larrea”, hain zuzen, herriko kondairek eremu natural honetan kokatzen baitute akelarreen ospakizuna. Espainiar Inkisizioak deabruzo kultutzat jotzen naturaren indarrei lotutako besta erritualak, hau da, sorginak akerraren irudiko dabrua gurtzeko biltzen zirela uste zuten.



# Ikuspegi distortsionatua

Geroztik, sorgina izaki boteretsu, ahalmen bereziduna da alde batetik; baina bertzetik, deabruarekin hitzarmenak dituen pertsonaia ere izango da, akelarreetan parte hartzeaz gain, begizko eta biraoak egiten dituen. Ikuspegi honek bere irudi eta ospea zikindu zuen, European zabaldua zen sorginen aurkako jazarpenak gure herrian eragin berezia izan zuelarik.

## Logroñoko autofedea edo “Zugarramurdiko sorginen” epaiketa publikoa

Zugarramurdiko Sorginen kasuak fama hartu zuen 1610. urteko autofedea zela medio: Alvarado inkisidoreak herrian 300 lagun inguru sorginkeriarekin nahasiak aurkitu eta gero, Logroñora eraman zituen susmagarrienak, 31 guztira. Leporatzen zitzaizkien kalteak, asmatuak eta torturaren bidez

aitortuak, sorginkeriari buruzko akusazio topikoak, herritarren arteko tirabirak, ekaitzak bezalako fenomeno naturalak sortzea edo uzta galtzea... izaten ziren. Kristautasunak erbesteratu gabe mantenduko ziren aintzinako erritoen existentzia ere ez da ahanzi behar.

1610eko azaroaren 7an, akusazioak, aitorpenak eta epaiak irakurri ziren Logroñon. Hurrengo egunean atxilotuak justiziaren esku utzi zituzten, eta zigorrak bete egin ziren: akusatuetatik 11 sutan erre zituzten; 6 bizirik, eta 5 gizairuditan.

Guzti honen atzetik, herriaren kontrako erasoak soma daiteke: Zugarramurdi Urdazubiko Monastegiaren jurisdikzio kriminalaren menpean zegoen eta hala mantendu zen 1667. urtera arte.

